

Alex Txikon "Aukeratu zeurea" kanpainearen irudi barria

10. orrialdea

Ondarea erakusteko ekitaldiak

Aurtengo Ondarearen Europako jardunaldietan Areatzak plazatik Santa Isabel komentura bisita gidatuak antolatu zituen hilaren 1 eta 2an. Zeanurin bisitok hilaren 15ean izango dira Olabarriko errotara eta San Justoko karobira eta hilaren 29an izango dan Ubidetik Zeanurirako Larreen Mankomunidadearen ibilbidea jardunaldi horreetan be sartuko da. **13. orrialdea**



Lau mendi martxa hurrengo hamabost egunetan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

149

2011ko urri bigarrenaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiera tailerra hilaren 18tik aurrera

Arratiera tailerra antolatu dabe Zertu Kultur Elkarte eta Ganoraz Euskera Elkarteak Igorreko Udalaren laguntzeagaz.

Ikastaroa urri bigarrenaren 18tik abenduaren 1era izango da martitzen eta egunetan 19:00etatik 20:30era Igorreko Kultur Etxean. Prezioa 50 euro da, 35 begitu-lagun izan ezker, eta plazak mugatuak dira, 35 lagun.

Interes handiko ikastaro honetan, idazkera jorratuko dau Aitor Erdoziak; lexikoa Juantxu Rekalde eta Angel Larreak eta andrazkoen hitanoa EHUko irakaslea dan Goizon Aurrekoetxeak. Irakasleak dinoenaren arabera metodologia aldetik oso praktikoa izango danez, ikastaro baino tailerra izango da.

Aurtengoa, hirugarren arratiera ikasta-

roa da. 2000. urtean izan zan lehena eta 2003an bigarrena. "Eztabaida asko izan ziran, eta saio sano dinamikoak. Sasoi haretan euskalkien presentziaren eta erabilera-esparruan inguruko eztabaida egoan Euskal Herrian" dino Urtzi Barrenetxea Zertuko idazkariak. Aurtengoa be jentearen partaidetzea espero dabe antolatzaileak.

Ikastaroaren helburua arlo informaletan Arratian egiten dan berbetearen kalidadea mantendutea eta erabilera bultzatzea da. Eta "hizkuntzaren kalidadea eta aberastuna egoera baxotxean erabili behar dan forma erabiliz lortzean da" Aurrekoetxearen esanetan. **8. eta 9. orrialdeak**



Arratiereak bizirik dirau.

LEMOA

Elizondo Kultur Gunea martxan

Lemoako Gaztetxe azpian biltegi moduan erabilten ziran hiru gela jaduera kulturalak egiteko berreskuratu eta Elizondoko Kultur Gunea izena emonda inauguratu zituen urri lehenengoaren 30ean. Udalak materialak ipini ditu eta herritarrak barriztu dabez gelok auzolanean. Behar dituan edozein alkartek edo lagunek erabili ahal izango dituala gela honek dino Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. **6. orrialdea**



ARANTZAZU ETA IGORRE

Sanfaustoak, AME eta sanmigelak

Herri afari batez ospatuko dabe Arantzazukoak Sanfaustoak hilaren 8an eta afa-lostean Jokaldik joko dau. AMEK, ez dau santuren atxakirik behar jaia antolatu-teko. Holan, Igorren erosi kanpainearen barruan jaia antolatu dabe egun berean. Igorren be hurrengo egunean sanmigelak ospatuten jarraituko dabe Garbeko azokeagaz. Goizean, baseriko produktuen azokea egongo da. **5. orrialdea**



ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskeraz zein erderaz

Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unaizulu@euskalnet.net

IGORRE

700 lagun bildu ziran Inbiu 2011n grabau zan Lip Dub-ean

Ehunka personak hartu eben parte bai Lip Dub-aren grabazioan bai aurreko entsegu eta alde aurreko beharretan. Bazkariko giro ederrak eta Jokaldiren erromeriak bete eben urri lehenengoaren 24an Igorren ospatu zan Euskera Eguna. Euskera Batzordea barriztatu eta indartutea da asmoa orain, 24an ikusitakoak aurrera egin dagian. **6. orrialdea**



KANTU HERRIKOIAK

NESKA
GRAZIOSA BATEK

Neska graziosa batek
Dimako herrian,
zortzi nobio ein ditu
hila bi terdian.
Bederatziparrena
zesteru tristia,
zu maleziez hartzeko
oindo ni gaztia.

Bata da kotxero ta
bestea letxero,
anajeak dire ta
Luis eta Josetxo.
Ondino be falteire
hiru mutil majo,
Migel eta Turebio
Frantzisko Egireungo.

Bi dire jenaruak
beste bat eulia.
–Ez itxi horrerri Petra
ez bazara lelia.
Badakigu Petratxu
zareana listia.
–Zu maleziez hartzeko
oindo ni gaztia.

–Petra, zuk pentsau arren
zuk niri[ni] ixtia,
gaur goxean hartuot
nobien kartia.
Hogetalau urtetan
nobiek ezezkoa,
ostera be egin behaku
gogotik zestua.

Zesteruen semiak
osasune badau,
artoari itxite
ogie jango deu.
Neskakaz fietan danak
gaurko egunian,
sarri eukiko ditu
frakak beleunian.

Mesede[a] eskatu n[e]untzun
gizonen antzian,
zein dozu gogokua
guztiorren[guztion] artian.
Baten bat eukikozu
zeure bihotzian,
Jaunak sartuko al zaitu
zeruko atian.

Iturria: Eduarda Bilbao Etxebarria (Dima 1905-Arantzazu 1988).

1982an, Arantzazun, Karmen Bernaolak jasoa. (Labayru Ikastegiko Ahozko Artxiboa).

Neska graziosa batek

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Urri bigarrenaren 3tik 9ra**

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

Urri bigarrenaren 10etik 16ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

Urri bigarrenaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Visorresponsable de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia

Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saia

Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Kukutza III aurrera

Kukutza III Errekalde auzoan (Bilbo) egoan gaztetxea da. Martxan egon dan hamahiru urteetan, bai honek bai izandako aurrekariak auzoari bizia, kultura eta giro euskalduna emon deutesie. Errekalde auzoaren babesa lortu dau eta udaletxeak betetzen ez eban hutsunea hartu dau; urte honeetan guztietan, gaztetxeak adin eta interes guztietako personentzako ekintzak antolatu ditu, auzoan integrau da eta auzokide guztien parte-hartzea buztartu dau.

Urri lehenengoaren 21ean, ostera, Ertzaintzak bortizki hustu eban Kukutza III eta bertan bildutakoak zauritu eta hainbat lagun atxilotu zituan. Ertzaintza,

modu berean, indarkeriaz oldartu jakien egun berean, arrastiz, manifestazioan bildu ziranai. Hustu eta handik gitxira eraikin osoa eraitsi eben; holan, bertan sortutako mobimentu guztia etxe barik gelditu da, eta auzoak kultura erreferentzia galdu dau. Bizilagun ugariaren eskariak muzin egin deutse udalak, interes ekonomikoen mesedetan.

Honen bitartez, Arratiako gaztetxe eta gazte asanbladak gure babesa eskeini gura deutsegu Kukutza III Gaztetxe kideai, aurrera segidu dagien, ukazina dalako auzoaren alde egin daben beharra eta batez be guretzat, asanbladak garan aldetik, eredugarriak diralako.

ARRATIAKO GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADAK

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Umegorria



Gorri berbearen esangurak asko dira eta sarritan laguntzen dauan berbearen ezaugarria edo egoera kaskartu edo gogortu egiten dau. Hortik datoz negu gorria, begigorria, txorigorria, narrugorritan, gorriak esan/bota/pasau/ikusi... eta umegorri. Umegorria nagusien keinuak egiteko ohitua daukan umea da. Heldutzat hartzean ez dan umeari esaten jako.

ERETXIA

Iruzur hirukotxa

Ikuspegi teoriko kritikoak aspaldian esandako moduan, Espainiako Konstituzinoaren arazorik larriena, eta baita paradajikoena be, bere izaera konstituzinogilearen ahulezian datza. Oinarritzko lege bateri eskatu beharko litxakioana alboratuz, 1978ko Konstituzinoak ez dau ezer ezarten, eraikiten, xedatzen... Aldez aurretiko errealidadearen isla baino ez da Konstituzino. Legitimidade demokratikorik ez daukien hainbat errealidaderen deskribapena edo, oraindino okerrago, aitortza besterik ez da 1978ko Espainiako Konstituzino. Hizkuntza bera da ahulezia honen lekuko: honek edo besteak honela edo bestela "izan behar dauala" adierazo beharrean, "honela da" dino eta lege gorenak: bardin Estaduko uriburua Madril "dala" esaterakoan, edo Konstituzinoaren oinarria aldez aurretiko nazino espainolaren zatiezinezko batasuna "dala" azpimarratzen dauanean. Hori da. Konstituzino horrek azpimarratu egiten dau, ondorioz, Espainiako herri omen "konstituzinogileak" ez dau ezer xedatzen, ezer agintzen, ezer ebazten... Ez bada, esan bezala, jada badagoana onartzea. Hauze da lehen arazo sakona, Konstituzinoaren muinari jagokona. Konstituzino idatzia herriaren borondate askearen adierazpen gorenaren izan beharko litzatekeanean, iraganetik datorren barne-konstituzino materialaren berrespena da, eta bere osaketan edota erreforman herripartaidetzea mugatua da zeharo: egindakoa txalotzea edo protesta (ia) antzua (15-m) geratuko jako herri soberanoari... Erreferendumik ez, badaezpada be.

Azken erreforman be islatuko da noski Konstituzino honen izaera deskriptibo huts hori, eta baita be zuzeneko partaidetzeari



MARIO ZUBIAGA

EHUko Politika eta Administrazio Zientziak saileko irakaslea

ipinten jakozan mugak. Izan be, 135. artikularen erreformaren xedea ez da errealidade sozio-ekonomiko barri bat ezartea. Zorritzarrez, 1977ko urri bigarrenean Moncloako itunetan sinatutako amore emotearen adierazpen normatibo berantiarra besterik ez da. Duda izpirik ba dago egon, aurrekontu-orekari jagokonean? Konstituzinoak ezer esan barik be, norbaitek pentsetan dau ongizate orokorraren eta zerbitzu publikoen mesedetan alboratuko dirala merkatuakaz adostutako konpromisoak?

Konstituzino onartu aurretik, 1977an alegia, ezarri ziran sistemearen muga sozio-ekonomikoak eta azken hogeita hamar urteotako bilakaerak erakutsi dauan moduan, ongizate orokorraren berme bakarra hazkunde ekonomikoa da. Goitik behera datorren aberastasunak, goikoen patrikak ondo bete ezker, harenetan ganezka egiten dauanean iristen da ongizatea gizartearen beheko solairuetara. Alkartasuna eta bardintasuna ez da behetik gora eraikiten Espainian, zerga banaketa bidezkoaren bitartez, esaterako. Ondorioz, krisi sasoietan, birbanaketari ekin beharrean, enpresariak lagunduko dira, etorkizunean enplegua sor-

tuko dabelakoan. 135. Artikulu barriak dakarran aurrekontu-orekaren kaltetuak ez dira inoiz aberatsenak izango. Baina horreek guztiak ez dira erreformaren ondorioak. Horreek, mugatu gura dan defizita bezala, ezaugarri egiturazkoak dira. Aspaldikoak, betidanikoak... Orduan, zertarako halako presea? Erreforma, gaztelaz esaten dan bezala, "brindis al sol" bat da. Azken egunotako barriak entzunda, merkatuak lasaitzeko edo, hartu dan ebatzi antzua. Lehendik be indarrean egoan egoerearen azpimarra alferrikakoa.

Edukian barrikuntza handirik ez badago, prozedureari helduko deutesagu barriro. Espainiako herriari ez jakola abotsik emon salatu dogu... Zer esan autonomia erkidegoi buruz? Non datza batzuk behin eta barriro aitazten daben foru-lurraldeen kuasi-soberania fiskala? Hori be bada adierazgarria erreforma honetan: gogorarazoteko inongo beharrik ez egoan arren, argi erakutsi dabe erreformaren bultzatzaileak autonomia erkidegoak ez dirala aginte politikoaren benetako egoitza, deszentralizazio administratibo hutsala gainegiturera parlamentuzkoagaz estaltzen bada be.

Laburbilduz, erreforma honek Espainiako Konstituzinoak hasieratik izan dauan betiko eta zuzterreko arazo hirukotxa berretsi dau, hau da: herriak ezin dau ezer agindu, autonomi erkidegoak ez dabe, baimen barik, abotsik, eta ikuspegi soziala ahula da oso, Europako herri gartuenakaz alderatu ezker. Inongo alde ideologikorik erakusten ez daben bi alderdietako oligarkien menpe dago Espainiako sistema politikoa, maila globalean ari diran agintarien esanetara, beti be. Hortaz, soberano bakarra merkatua da, eta, bere harrotasunean, akaso, Angela Merkel. Ezkongabea, Angela Dorothea Kesner. Hor be, miseriak miseri. Inposizino edonon.

K Kendall Languages

Europa mailan sano ezaguna dan ingelerazko ziurtagiria lortu gura dozu?

zatoz Holan bada: %95eko arrakasta daukagu

Irakaslegoa oso prestatua dago eta gehienen ama hizkuntza ingelera da. Bagilean (ekaina) zentroan bertan egingo dan Trinity azterketara aurkeztu zinteketz. Enpresetarako ingelera.

Kendall Languages, jentea prestatzen

Elxalde 4 behea
48.140 Igorre (Bizkaia)
94 657 73 48
www.kendall-languages.com

LUMATUTEN

IRATXE
ETXEBARRIA

Garai barriak

Azkeneko urteotan Europako herrialdeetan, eskoi muturreko alderdien gorakada izan da albiste. Huntsura arte. Garagarriean, Osloko atentaduen ostean be, ixildu barik ibili ginan kazetariok eskoieko muturrak hartu dauan indarrak berbetan. Egia da, herrialde batzuetan alderdi xenofoboak gora egin dabela. Baina ez ete da, eskoi muturreko edo populisten gorakada bat baino, uritarrok beste zeezer gura dogula eta alderdi politiko tradizionalak emoten ez daben zeezeren bila gabizala?

Hurbilagokoetan sakondu barik begiratu Danimarkara. Hamar bat urteren ostean, sozialdemokratak irabazi dabez hauteskundeak. Takoi altuen ganean dotore dabilan andrazko bat izango da aurrerantzean gobernu buru. Begiratu Alema-

niara. Azken urteko hauteskundeetan, (zazpi bat deialdi egon dira) Angela Merkelen alderdi demokristaua Sajonian bakarrik izan da garaile. Eta urteetan alderdi demokristauaren feudo izan diran Hamburgo edota Baden Wuttmberg estadiak galdu ditu. Nork egin dau gora? Ba, Berlingo hauteskundeetan esaterako alderdi piratak, beste batzuetan berdeak...

Beraz, European alderdi xenofobo edota eskoi muturraren gorakada bat dagoala esaten danean, ez gabiz oker. Baina esango neuke, uritarrok eskoiezkerria, sozialistak-popularrak... bipartidismo horretaz kantsetan hasi dirala. Batik-bat jente gaztea. Ateak itxita topetan dabez nahiz eta euren gurasoak egon ziran baino hobeto prestatuta egon. Ateak ixten deutseezan agintariak (ebatzirik hartzean ez dabelako edo ez beharko leitekian bestean arin) euren gurasoen sasoikoak dira, betikoak dira. Abiapuntu desbardinatetik etorri arren, ez da kasualitatea Espainiako 15-M edota Arabiar herrialdeetako erreboltak, Londresko abuztu beroa... danak batera etortea.

Krisi sasoi honetan (politikoa, ekonomikoa, soziala...) ilusinoa behar da. Horregaitik dinot, iraganeko errezetakaz aurkezten danak jai daukala. Aldaketa garaiak datoz. Garai barriak.

ZERTZEAN



JULEN GABIRIA

Iraila

Hiri gris bat, auzo bat hiri grisean, eraikin bat auzoan, teilatu bat eraikinean, gazteak teiltuan biribilean jesarrita, buruak makurtuta. Alboan polizia bi, fusilak eskuetan; egitekotan, airera egingo dute tiro, jakina, beti airera. Aire da, adibidez, fusilaren ahotik inoren burura dagoen distantzia.

Gaur ez da Dorre Bikirik erori, ez dago albiste potolorik. Iraila da, nork erreparatzen dio irail triste bati? Irratiak dio goizean lainoa eta gero eguzkia, eta bero egingo duela, egoteko prest denok, gaur sargori egingo duelako eta euliak ibiliko zaizkizulako inguruan bueltaka, edo eulikoeroak, edo helikopteroak.

Gaur Alzheimerren Nazioarteko Eguna da, ez ahazteko moduko eguna.

Gaur Bakearen Nazioarteko Eguna ere bada, zein egun izango zen bestela.

Gaur Artista Plastikoen Nazioarteko Eguna ere bada, baina teiltuko gazteak fusilekin apuntatzen dituzten poliziek ez dakite zer den hori, eta hiztegi-rik ere ez dute eskura, eta balute ere, gogorik ere ez kontsultatzeko. Walkie-talkietik deitu diezaiekete euren nagusiei (ze politikak euren bulegoak), galdetzeko zer kristo den hori, baina zertarako deitu, nagusiek ere ez badute jakingo.

Ze egun aspergarria, gaur ez dago aipatzeko moduko urteurrenirik efemerideetan. Duela 10 urte produktu kimikoen fabrika bat lehertu zen Frantzian (30 hildako), eta duela 50 urte Boeing CH-47 Chinook helikopteroak bere lehen hegaldia egin zuen.

Irratiak dio bero egingo duela gaur. Teilatu bat, eraikin bat. Nork daki, beharbada oraintxe ari da sortzen beti gogoratuko dugun efemeride horietako bat. Hiri gris bateko auzo bateko eraikin koloretzu batean.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Batzuk ago bete hazur edo ago bete hortz geratzen gara eta beste batzuk ago bete arrain, antza. Harrituta edo txundituta, dana dala. Holan gagoz gu be ikustean azkenean zenbat jentek hartu dauan parte lehiaketan eta ze kalidade oneko argazkiak bialdu dabezan munduko bazter guztietatik.

Oraingoan ez dogu irabazlearen izena emongo, ebatzi barik dagoalako, gatxa izango da ganera irabazlea zein dan ebaztea. Baina hurrengo BEGITUN, (aktualidadeak baimentzen badeusku behintzat) erdiko orrialde biak argazkirik onenak irakurleokaz konpartiduteko izango dira eta hantxe emongo dogu saridunen barri. 63 argazki dagoz lehian.

Hona dakargun argazki sinpatiko hau Nahia Galar Goikoleak bialdu deusku Dahaben, Itsaso Gorrian buzeetan aterata. "Argazkikoa nire buzeo kidea Hamad da, haginak garbitzen" dino Nahiak.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Fax: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Implantateak
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa
Ondarroa

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia Aiderkoa
R.P.S. 20/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isaki
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
e-mail: margoiza@euskolnet.net

ARANTZAZU

Herri afaria frontoian

Erredakzioa

San Fausto eguna urri bigarrenaren 14an izan arren, hilaren 8an ospatuko dabe Arantzazun jai hori, herri honetan tradizio bihurtu dan moduan herri afari batez. Iluntzeko 20:00etan batuko dira herritarrak frontoian patatak errioxar erara, "luma gorri" oilasko izterrak brasan erreta eta postrea, kafea eta kopea bapo afaltzeko santuaren omenez. Afalostean, JOKALDI taldegaz jantza egiteko aukerea izango dabe arantzazutarrak eta erromeriara hurreratzen diran guztiak.

Arantzazukoak udako herri eta auzuneetako jaiak agur esango deutsee arratiarrak datorren urtera arte.

Auzuneetako azken txapli-guak

Auzuneetako jaiak be agurra baino ez jakie falta nahiz eta jai egitarau batzuk hile honen 4 edo 8ra arte luzatu. Holan, San Fresku eguna,

hilak 4, Indusin (Dima) ospatuten da eta mezea ermitan eta baruskarria egongo da bertan. Eta hilaren 8an baserriko produktuen Garbeko azokeak (Igorre) emongo deutse sanmigelai amaiera.



Arantzazu.

ARANTZAZU

ETBk mezea grabauko dau

Erredakzioa

Arantzazuko San Pedro Apostolua parrokia aukeratu dau Euskal Teletistik mezea grabau eta emoteko urri bigarreneko lehen hiru asteetan zehar.

Urri bigarrenaren 1, 8 eta 15ean, arrastiko 19:00etan grabauko da mezea eta hurrengo domekaz, goizez, emitiduko da Euskal Herri osorako. Hau dala eta, Arantzazun domekako mezea kendu egingo da eta Igorreko Andra Mari parrokian bezperakoa be kenduko dala jakitera emon dabe eleizako iturriak.

ETBrako lan honeek prestatzen dituan lan taldea Arantzazun egon da grabazioak prestatzeko eta herriari buruzko dokumentazioa jasoteko.

ZEBERIO

165 kilo orio jaso dabe

Erredakzioa

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek jakitera emon dauanaren arabera, eskualde horretan 36.121 kilo orio birziklatu zituen 2010. urtean. Horreetatik 165 kilo jaso ziran Zeberion.

Horretarako 46 edukiontzi dagoz eskualdean.

"Lehen, zenbait udalerritan, furgonetaz jasoten zan orioa, baina edukiontzi bidezko bilketa-modalidade barri hau urteko 365 egunetan erabil daiteke, eguneko 24 orduetan; ondorioz, emoitzak laukoiztu edo seikoiztu egin dira, kasu bakoaren arabera" dinoe Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal erakundeak.

IGORRE

Azokea, globoa, artzai txakurrak eta txahal errea

Erredakzioa

Igorreko Udalak eta BBK-k antolatuta, urri bigarrenaren 9an XXXII. Garbeko Azokea izango da. Urri bigarrenaren bigarren domekan ospatuten dan azoka honetan baserriko produktuak eta artisau lanak biltzean dira. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00ak arte egongo dira baserriarrak euren produktuak saltzean.

AMEk "Igorren erosi" kanpaina

"Igorren erosi" kanpainearen barruan, Arratiako Merkatarien Elkar-teak musikea, txosna eta hainbat ekitaldi izango dituan jai antolatu dau hilaren 8rako, azokaren aurreko eguna. Trikitilariak ipiniko dabe musikea, Mendilur artzai txakurrak behar egiten dauan alkarteak, txosna; eta merkataria, txiri-txiri erretzen joango dan labeldun txahala.

Eguraldiak lagunduten badau

globo aerostatikoa aieratuko dabe goizean, eta arrastian, Mendilurrek erakustaldiak egingo ditu. "Artzai-txakurrak pastoretza beharrak egingo dabez ardiakaz eta okakaz. Eta txakur honeek modu terapeutikoan erabilten dabezan hiru ume be geugaz egongo dira txakurroak olgetan" azaldu deutso BEGTURI AMEK.

"Rifa batzuk be ipini doguz saltzean, otzara bat zozketatzeko. Otzarea Arratiako produktuez egingo dago. Gaztaia Arratiakoa, ogia Arratiakoa, arrautzak Arratiakoak, txorizoa... bertako produktuak egingo otzara bat".

Iluntzean txahal errearen pintxoak jarriko dira salgai, bertaratutakoak dastatu daiezan.

Egitaraua

11:00etan, globo aerostatikoa.

17:30ean, Mendilurren erakustaldia. Artzai txakurrak ardiakaz eta okakaz.

19:30ean txahal erre pintxoak.



Igorren globoan ibiltzeko aukerea egongo da hilaren 8an.

Txalaparta ikastaroa 011- 012

Emon izena 615 731 182 (Saioa) telefonoan urri bigarrenaren 20a orduko.

Espazioa eta denbora eta zu eta ni. Zu eta ni nahi duguna egiteko. Hurbildu, beldurrik ez. Lehen aldia beti da lehen aldia, ez besterik. Zu hasi, nik segi. Arin, ez. arin ez. hasi astiro. Kontuz, kontuz. ibili. Ni zure menpe, zu nire menpe. Gure denbora daukagu nahi duguna egiteko. Esperientiatu, gozatu. Zuk zure espazioa nigana heldu arte. Eta alderantziz. Hartu denbora, zure denbora. Binomioa trinomioa bihurtu da. Erabil dezagun fresna. Gozatu dezagun beste batekin batera. Integra dezagun hirugarren hori gure artean. Besterik ez gure artean. Eutsi egiozu sendo. Orain nik, orain zuk. Isiltasuna. Zure arnasa entzuten dut beste soinu batzuen tartean. Jarraitu erritmoa. Ez gelditu. Soinu bat. Bi soinu. Isiltasuna berriz. Bikoa. Herrona. Isiltasuna. Itakun. Txahal aparta. Isiltasuna. Eta soinuven segidak batzen gaitu.

BATZ

BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharreen beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION


ARRATIA

Mankomunidadeko gerentea eta presidenteordea izentautu**Erredakzioa**

Uri lehenengoaren 15ean izandako batzarrean, Arratiako Udalen Mankomunitateko gerenteari eta presidenteordearen izendapenak egin zituan Josune Gorospe presidentea. Iñaki Olabariak segiduten dau erakundearen

Gerentziako arduradun moduan eta presidenteordea Aitor Sorriketa da.

Garagamilaren 28tik, 2011-2015 agintaldirako mankomunidadeko presidentea Dimako Josune Gorospe (EAJ-PNV) da eta udalbatzarrek 19 kide ditu: hamar EAJ-PNVkoak, zortzi Bildukoak eta Alkarlanien hautagaitzako ordezkari bat.



Arratiako Udalen Mankomunitatea.

IGORRE

Genero indarkeria izan daitekean eraso sexista kasu bat gertatu da**Erredakzioa**

Aldizkari honen iturrien arabera, urri lehenengoaren 27an, Igorren genero indarkeria izan daitekean kasu bat gertatu zan. Biktimea udaltzain batek eta mankomunidadeko gizartegintzako batek lagunduta joan zan salaketa ipintera Ertzaintzara. Aldizkari honek galdetu dauanean zehazki zer gertatu dan eta ea gizona atxilotuta dagoan ez Ertzaintzan, ez udaletxean ez mankomunidadean ez deustie erantzuten jakin. "Kasua kili-kolo dago. Hau herri txiki bat da eta uste dot kaltegarria izan daitekeala horren barri emotea" esan deutso BEGITUri Alexander Intxaurre mankomunidadeko Gizartegintzakoak.

Genero indarkeriaren aurrean protokoloa ebazteko beharrean dabil mankomunidadea Emakunderen diru laguntza bategaz.

Talde feminista bat sortu gura dabe Igorren

Igorreko andra feminista batzuen ekimenez, urri lehenengoaren 19an, 20 andra inguru batu ziran Igorreko Kultur Etxean talde feminista bat sortzeako asmoz. Taldearen eremua Arratia ala Igorre izango dan oraindino defintidu barik dagoala dino Soraya Lizundia deia egin ebenetako batek. "Arratiako beste herri batzuetan badagoz talde feministak edo emakume taldeak, baina Igorren ez. Batzuen ustez horregaitik Igorre mailakoa izan beharko leuke, beste batzuen ustez beste herrietan dagozan talde

feministen hutsuneak betetzeko Arratia mailakoa izatea egokia litzateke".

Jente gogotsu eta heterogeneoa bildu zala dino Lizundiak "Bilgune feministan izandakoak, feminismoan inoiz militau ez dabenak, sahararrak... Baina danak jenero estereotipo bako gizarte bat gura dabenak, sexismoaz nazkatuta dagozanak eta talde feminista baten partaide izan gura dabenak".

Hurrengo bilera hilaren 10ean, izango da IKEn, 19:30ean.

1.952 eraso sei hilabeteetan

Pasa dan hilean Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak, Mariola Serranok, Euskadin 2011ko lehen sei hilabeteetako genero indarkeriaren balantzea aurkeztu eban. Honen arabera, 1.952 emakumek jasan ditue erasoak, batzuek behin baino gehiagotan, eta sasoi horretan 2.357 biktimizazio izan dira guztira. Sasoi berean, erakundeak biktimari lagunduteko egindako ekimenen artean, Zuzendaritzatik 637 jarduera egin dira biktimari laguntzeko eta aholkuak emoteko, 36 diru-laguntza emon ditue eta etxebizitza bana emon deutsee biktima izan diran bost emakumeri.

Bagilaren 30ean, EAEko 46 andra etenbarik zainduta egoazan eskolten bidez, 20 erasotzailek eta biktimak eskumuturrekoa eukien denpora guztian non egoazan jakiteko, eta 242 andrak "Bortza" sakelako telefonoa eukien euren burua babesteko, Ertzaintzak emonda.

LEMOA

Elizondoko Kultur Gunea inauguratu dabe

Uri lehenengoaren 30ean, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak Elizondoko Kultur Gunea inauguratu eban.

Erredakzioa

Hiru gela dira, alkarteak erabilteko, eta Karabie Gaztetxe azpian dagozan gela honeek erabilgarri ipinteko beharrak auzolanean egin dira. Altzariak be danon artean, auzolanean, barritu dabez.

Inaugurazio ekitaldian, alkatearen berben ostean, Lemoako Koralak kantalditxua eskeini eban eta kopautxua egon zan. Hau be auzolanean egin zan, hau da, lemoaztarrak etxean egindako tortillak eta pintxoak ekarri zituen, danon artean jateko.

Jente askoren beharra

Alkateak BEGITUri esan eutsanaren arabera, di-da baten eta diru gitxigaz ipini dira gelok erabilgarri. "Jente askok hartu dau parte. Ipini genduan ordutegi bat eta gura izan dauan guztia etorri da behar egitera. Udalak materialak ipini ditu eta danon artean egin dogu beharra" dino Elejabarrietak.

"Korala etorri zan lokalak eskatuten abuztuan edo. Eta udaletxean ikusi genduan beharrezkoakzirala". Alkateentzat eta ekintza kulturalak egiteko Lemoako eskoletako gela batzuk erabili izan dira orain arte, baina DBH dala eta, Hezkuntza hasi da obrak egiten eta lehen erabilten



Elizondoko Kultur Gunea.

ziran gela batzuk ezin dira orain erabili.

Gelak prestatzeko modurik eraginkorrena auzolanari eretxi eutsien udaletxean. "Lemoan bide eta kamino asko dagoz eginda auzolanean. Egoki jo dogu hori errekupeatea eta sano pozik gagoz zelan urten dan ikusita". Abuztuan Koralak gelak eskatu eta urri lehenengoan inauguratu da Elizondoko Kultur Gunea.

Korala, Eskulanak eta Gazte Lekuak

Behar dauan edozein alkartek, udaletxeko ikastaroak egiteko, edota behar dauan edonork erabilteko izango dirala gelak dino alkateak. "Baina ordutegi bat markau dogu gitxi gorabehera gelak noiz egongo diran beteta ikusteko. Koralekoak, Eskulanetako ikastaroak eta astegoienetan Gazte Lekuak hartu dituez gelak".

IGORRE

Euskerearen aldeko Lip Dub-a sano arrakastatsua izan zan**Erredakzioa**

2002 urtetik martxan da igorretarrak diseinatu eben Igorreko Euskera Plana. Ordutik Batzordea beharrean dabil Euskera Plana garatuten. Lip Dub-a bera be, hemendik sortu da. Amaia Arauzok Udaleko Euskera Teknikariak dinoanez, "ehunka personak hartu dabe parte, aldez aurreko lanetan eta INBIU egunean. Ez da erreza berbakaz adierazotea zapatuan bizi izan gendua: emozioa, negarrak, poza... herritik sortutakoa herriarentzako. Igorreko Euskera Batzordea barritatu eta indartuta da asmoa orain, pasa dan zapatuan ikusitakoak aurrera egin dagian".

Oraindino Lip Dub-aren bideoa ikusi ez dauanak helbide honetan



Lip Dub-a grabetan.

ikusi daike: <http://www.vimeo.com/29637923>. 6.100 bisitatik gora ditu jada Lip Dub-ak.

Euskera Planeko Batzordea hilaren lehenengo eguaztenetan batzartuten da, 19:00etan kultur etxean. Hurrengo batzarra hilaren 5ean izango da.

ARRATIA

Basurdearen ehiza-denporaldia hasi da

Jon Urutxurtu

Uri lehenengoaren 11n, hasi zan basurdearen ehizarako denporaldia

eta urtailaren 29ra arte luzatuko da. Aurrerantzean, gure inguruko mendietan txakur-ahausiak eta tiroak entzungo dira domeketan. Guztira 35 ehiza-talde ibiliko dira ehizan Bizkaian zehar, Foru Aldundiak antolatu dauzan 46 ehizaguneetan, horreetako batzuk Arratia aldean dagozalarik.

Argazkian agertzen dan basurdea, 9. zenbakidun ehiza-taldeak —Zeanuriko Zulaibar auzoan alkartzen dan taldeak— denporaldia zabaldu zan egun berean eta Urrekoatxako ehizagunean hil eban lehenengoa da, 80 kilo inguruko basurde harra.



9. zenbakidun ehiza-taldekoak hildako basurdeagaz.

IGORRE

Lan istripua Tecnichapan

Erredakzioa

Igorreko Tecnichapa enpresan gertatutako istripu ez traumatikoan behargin bat hil zan urri lehenengoaren 1ean. Securitas Seguridad España enpresak azpikontratatutako behargina zan 48 urteko F.G.T.

Lan istripua salatuteko enpresa batzordeak geldialdia eta kon-

zentrazinoa egin zituan hurrengo astelehenean enpresearen atarian. Igorreko Udalak hildakoaren senitartekoai doluminak adierazo eta beharginak egindako mobilizazio eta ekimenak babestu zituan.

Igorreko Udalaren eretxian "lan-istripuak eta bere jatorrian dagoan laneko prekariedadea arazo larria eta konpondu beharrekoa da". Izan be, aurten Igorren lan-istripuz izandako bigarren heriotzea da hau eta Euskal Herri mailan, 40tik gora dira aurten hildakoak udal iturrien arabera.

IGORRE

Zazpi batzar egin dabez herritar eta udalaren artean aurrekontuen ganean

Erredakzioa

Aurrekontuak modu parte-hartzailan egiteko batzarrek egin dabez Igorreko auzuneetan. Lehenengoa Garbe-Mikelen izan zan urri lehenengoaren 12an, Hurrengo batzartu ziranak San Kristobal auzuneak izan ziran 15ean; 19an, Gezala-Basauntz auzune batzarra izan zan; San Juan auzuneak 20an; gero, Urkuzu-Garakoikoak 21ean batu ziran; kultura eta kirola sektoreko batzarra urri lehenengoaren 22an izan zan eta azkenik 28an, erdigunea-Olabariko biztanleak.

"Batzar bakoitzean hogeitaka persona agertu dira. Informazioa emonda, konponketa txikituak egingo dira apurka-apurka, erdi ahaztuta egon diranak. Eta proiektu izarrak urte bira edo egingo dira" azaldu deutso Begituri Beinat Anzola Igorreko alkateak.

UBIDE

Plazea konponduteko lanak hasi dabez

Erredakzioa

Ubideko San Juan plaza konponduteko beharrak hasi ziran urri lehenengoaren erdialdean eta lanok zemendiaren hasierarako amaituta egotea espero dau

Joxan Pagola Ubideko alkateak. "Orain arte, plazako zoluak lausazko zati bat euki dau eta beste asfaltozkoa. Obra honegaz dana harrizkoa ipiniko dogu" azaldu deutso BEGITURI Joxan Pagola alkateak.

Lasuen enpresa kontratisteari esleitu jako obrea eta obra honen aurrekontua 119.361,48 eurokoa da. Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailak diruz lagundu ditu barrizatze lan honek 69.111,60 euro emonda.

izena emoteko orria

Ikastaroan apuntetako BBK-ko kontu honetan 2095 0154 50 9109741254
50€ (Begitu-lagun bazara 35€) sartu; fitxa bete eta ordainagiriagaz batera hemen behean daukazun helbidera bialdu.

izena..... abizenak.....
helbidea..... herria.....
telefonoa.....

izena emoteko epea urri bigarrenaren (urria) 12an amaituten da (plaza mugatuak. 35 lagun)

Zertu Kultur Elkarte
Herriko Plaza 24
48.142 Artea (Bizkaia)

Arratiera tallerra

edukiak eta irakasleak

idazkerea
Aitor Erdozia

andrazkoen hitanoa
Gotzon Aurrekoetxea

lexikoa
Juantxu Rekalde eta Angel Larrea

ikastaroaren egutegia

19:00etatik 20:30era martitzen eta eguenean Igorreko Kultur Etxean

urri bigarrena 18, 20 eta 27

zemendia 3, 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29

abendua 1

Ametzola Landetxea

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

HERRIKO BENTA

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

ZERTU KULTUR ELKARTEA

Zertuk arratiera tailerra antolatu dau berbetearen kalidadea mantenduteko

Sasoi bakoitzean euskerearen biziraupenak arrisku desbardinai egin behar izaten deutse aurre. Azken 30 urteotan euskerearen presentzia handitu egin da eremu batzuetan eta txikitu beste batzuetan. Holan, oraindino egiteko asko badago be, euskerea sartu egin da hezkuntzan, hedabideetan eta beste arlo formal batzuetan, bere presentzia bermatuz eta egonkortze prozesu bateri ekinez, baina kontrakoa gertatu da eremu informaletan.

Erredakzioa

Honeetan euskerearen presentzia gitxitu egin da eta gurea lango jakintza maila aldetik oso euskaldunak diran herrietako kaleetan, erderak nagusitzen dira gehienetan. Akaso, tarte lar handia dagoalako erregistro bien artean, eskolan ikasitako euskerea eta lagunakaz ibilteko balio dauanaren artean, eta herri transmisino nahikorik ez dagoalako. Hutsune hau betetzeko euskalkiak eta herri hizkerak inoiz baino beharrezkoagoak dira.

Zertu Kultur Elkartea sortzeako arrazoiak bat Arratiako euskerea bultzatzea izan zan, agozkoan zein idatzizkoan. Holan, bailarako filologoen aholkuai segiduz eta eztabaidak eztabaida, Zertuk sortutako BEGITU Aldizkariak bide bat egin dau arratiarrak hur sentiduten daben euskera molde baten idatziz. Baina bere eragina izan arren, ez da nahikoa tarteko eremu informaletan euskerea bultzatzeko, agozkoa bultzatzeko beste tresna bat behar zan. Eta horretarako sortu ziran arratiera ikastaroak: herritarren hartu-emonetako euskereari bultzadea emoten ahalegina egiteko.

Aurten, urri bigarrenetik abendura Zertu Kultur Elkartek eta Ganorazek antolatuta eta Igorreko Udalaren laguntzeagaz hirugarren Arratiera tailerra emongo dabe Gotzon Aurrekoetxea, Aitor

Lemoako Gaztetxeko

blogean azaldutako

artikuluak batu ditu

Iker Yurrebasok *Haizea*

*Aurpegi*an titulupeko

liburuan

Zertu Kultur Elkartek

arratiera tailerra,

berbaldiak eta liburuaren


aurkezpena antolatu ditu

hile honetarako

Andrazkoen hitanoa,

lexikoa eta idazkerea

landuko dira tailerlean



Arratierearen ganean egiten dan 3. ikastaroa da hau.

Erdozia eta Juan Rekalde eta Angel Larreak.

Arratiera ikastaroen historia
Aurten urri bigarrenaren 18an hasiko dan ikastaroa bertako berbakerea lantzeako bailaran antolatu dan hirugarren ikastaro edo tailerra izango da. "Aurretik ikastaro bi izan dira. Biak Ganoraz Euskera Taldeak antolatuta Gotzon Aurrekoetxea EHUKo irakaslearen laguntzeagaz" azaldu deutso BEGITURI Urtzi Barrenetxea Zertukoak.

Lehenengoa 2000. urtean izan zan eta bigarrena 2003an.

"Eztabaida asko izan ziran, eta saio sano dinamikoak. Sasoi haretan euskalkien presentziaren eta erabilera-esparruan inguruko eztabaida egoan Euskal Herrian. Hurrengo ikastaroetarako gai posibleak be balorazino eta eztabaida horreetatik urten ziran. BEGITU be orduan sortu zan, eta arratiarrak bertakoentzat zelant idatzi zan sarritan eztabaidatuten zan kontu bat. Geure berbategie proiektuko lehenengo emoitzak be bertan ikusi genduzan. Akorduan daukat Juantxu eta Angelek alderdi informala landu behar dala behin eta barriro esaten.


ikasgai berberak ditue orain 8 urteko ikastaroak eta aurtengoak. 2003an, Gotzon Aurrekoetxeak Arratiako Hitanoa landu eban, Juantxu Rekalde eta Angel Larreak lexikoa eta Natalia Bilbao, sasoi haretako BEGITUKO kazetariak, arratierearen idazkerea. Aurten be, Arratiako hitanoa, lexikoa eta arratierearen idazkerea landuko dira.

Andrazkoai zuzendutako hitanoa

Ikasgaiak bardinak izan arren, edukiak desbardinak izango dira. Holan, Gotzon Aurrekoetxea




Idazkerea, lexikoa eta andrazkoen hitanoa jorratuko dira.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04


ellaury HOTEL
Naturazkoak
Landa Turismoa
Erroma Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellaury.com

GALANTA
Bametik janzteko
Zugandik sarotz hurbal

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

Irakasleen ikerketak kontraste-tako oso ikastaro baliagarriak izan ziran. Esaterako, Aitor Igesiasek Igorreko euskerearen ganeko tesirako emoitza batzuk eztabaidatu ziran, Gotzonen hitano-taulak, Berbategiko hitzak... ekarri dau gogora Barrenetxeak.

2000. urteko lehenengo ikastaro haretan, Aitor Igesiasek Arratiako berbakerea landu eban, Gotzon Aurrekoetxeak Lexikoa, Iñaki Gamindek Aditza eta Juan Manuel Etebarriak Gorbeia inguruko etnoipuinak eta esaundak.

2003ko ikastaroari begiratu ezker, esan daikegu aurtengoaren segida dala, nahiz eta 8 urte pasau diran tartean. Izan be,

irakasleagaz, andrazkoai zuzendutako Arratiako hitanoa ikasiko dabe ikasleak. "Interes handiko kontua, ze Arratian gizonen artean eta gizonai zuzendutako hitanoa bizi-bizirik dagoan arren, andrazkoai zuzendutakoa askoz gitxiago entzuten da" dino Iñigo Iruarizagak. Honegaz, antolatzailak espero dabe berbakera modu honeri behar dauan arnasa emotea.

Ikasleak lexikoa landuko dabe Juan Rekalde eta Angel Larrea *Arratia Inguruko Hiztegiaren* egileakaz. Gai honen inguruan arratiarrak interes handia erakutsi dabe. Izan be, hiztegiak argitalpen bi ditu daborduko.

Arratierearen idazkerei jakokonean, barriz, Aitor Erdozia Zertuko zuzendaritzako kidea izango da irakaslea.

Eskolak urri bigarrenaren 18an hasi eta abenduaren 1era arte luzatuko dira. Martitzen eta egue-netan izango dira, 19:00etatik 20:30era, Igorreko Kultur Etxean.

Izena emoteko BBK-ko kontu honetan 2095 0154 50 9109741254 berrogeita hamar euro (Begitu-lagun izan ezkerok 35€) sartu behar dira eta datuak ordainagiriagaz batera helbide honetara bialdu: Zertu Kultur Elkarte, Herriko Plaza 24, 48.142 Artea. Plaza mugatuak dira eta lehen 35ak baino ez dabe eukiko tailerra egiteko aukerarik.

Berbaldiak eta liburuaren aurkezpena

Arratiera tailerra ez da Zertu Kultur Elkarteak hile honetarako antolatu dauan ekimen bakarra.

Aurrekoetxea dimoztarra izango dira hizlariak" dino Iñigo Iruarizaga Zertuko antolatzaileak.

Eta hilaren 21ean, Iker Yurrebasoren *Haizea Aurpegian* liburuaren aurkezpena egingo dabe Zertuk eta Lemoako Gaztetxeak Igorreko Kultur Etxean. Liburu argitaratu ahal izateko Igorreko Udala eta Ganorazen laguntzea euki dabe argitaratzaileak. "Aurkezpena errezitaltxu bategaz jantziko dogu... Irakurle bat, irudiak, antzezle bat, musika pixkatxu bat..." azaldu deutso BEGITUri Iker Yurrebaso idazleak.

Hau ez da Yurrebasoren lehenengo liburua. Izan be, 2005ean *Ametz* narrazino liburua kaleratu eban Zertu Kultur Elkarte eta Lemoako Gaztetxearen eskutik. Egilearen ustez liburuok ez daukie zerikusi handirik "ez bada biatjea erabilten dala bietan pertsonajea hazteko". Horrezaz ganera, Maite Yurrebaso arrebearen irudiak

Gotzon Aurrekoetxea: "Andrazkoen hitanoa harribitxia da gaur egun"

Gotzon Aurrekoetxea EHUko irakasleak noka emongo dau arratiera tailerlean eta tratametu honen egoerea zein dan eta tailerraren nondik norakoak azaldu deutzaz BEGITUri.

Erredakzioa

Zein egoeratan dago Arratian andrazkoai zuzendutako hitanoa (hau da noka)? Bizirik dirau?

Aspaldi amaitu zan andrazkoen hitanoa Arratian. Bizitza publikotik gitxienez 30 bat urtetik honantz esango neuke ahulduz joan dala. Eta orain andrazko hitanoa egiten dabenak aurkitutea harribitxiak aurkitutea moduan da. Badagoz baina egunero modu "naturalen" egiten daben gitxi batzuk, sano gitxi.

Beste eremuetan antzeko egoeran dago? Hobeto? Okerrago?

Hitanoa leku guztietan dago makal, leku batzuetan osasuntsuago besteetan baino, baina orohar makal. Andrazkoena okerrago. Arratian ez dago ez hobeto ez okerrago nire ustez.

Hemen Arratian toka entzuten da gehiago, ezta? Badago noka gehiago entzuten dan lekurik? Ideala parekotasuna izango litzateke, ezta?

Arratian gizonetako hitanoa (toka) da entzuten dana, askok andrazkoai be gizonetakoetan egiten deutsee, egiten deutseenean. Toka baino noka gehiago entzuten dan lurralde edo eremurik ez da. Gizartean gizonetako eta andrazkoen rola kontua da, eta gure gizartea zelango dan badakigu... Ideala "parekotasuna" baino andrazkoai noka eta gizonetakoai toka egitea da, gizonetako zein andrazkoai izan berba egiten dauana.

Zergaitik da inportantea tratametu hori mantendutea? Zelan bultzatu daiteke?

Garrantzitsua ez da tratametu hori mantendutea, garrantzitsua zera da: hizkuntza edo berbetaren kalidadea. Euskeraz lagunarteko modua hitanoz berba eginez lortzean da (Ikusi hoat/honat), eta euskera formala "neutroan" berba eginez (ikusi zaitut). Hizkuntzearen kalidadea eta aberatasuna egoera baktoketan erabili behar dan forma erabiliz lortzean da. Urte askoan hitanoa txarto ikusia egon da, baina itxura baten azken urteotan beste ikuskera bat nagusitu da eta bada sasoia hitanoari bere maila emoteko. Eta hitanoagaz gabizala, gehien galdu dan formea (andrazkoena) indartutea ezinbestekoa da oreka lortzeako. Zelan lortu? Bide bat baino ez dago, nire ustez: ikastaroak antolatu eta erabilten irakatsi. **Hau arratiera hirugarren ikastaroa da eta hiruretan egon zara irakasle. Pentsetan dot horrek esan gurako dauala balorazio positiboa egiten dozula. Ze eragin izan dabe ikastarook euskerearen erabileran? Zergaitik pasau dira 8 urte bigarrenetik hirugarrenera?**

Hemen alde bitako balorazioa

dago: nirea eta antolatzaileena. Niretik hasita, nirea erraza da: zenbat eta ikastaro gehiago egin, orduan eta euskera maila dotoreagoa eta aberatsagoa izango da. Ekina da bidea; bide honek ez dauka helmugarik edo beste era batera esanda, helmuga ekitea da, nekatu barik.

Baina nire ustez meritua antolatzaileena da. Ganoraz Euskara Elkarteak egin dauan bidea txalogarria da, eta azkenaldion Zertu Elkarteak egiten dauana (BEGITU argitaratzen dauan alkattea) be bardin. Arratiako euskerearen hauspoak dira. Eurai be eskatu beharko jakie euren balorazioa egiteko, nirea baino orokorragoa eta balio handiagokoa izango dalako.

Zein da erabiliko dozun metodologia?

Aurten ez da ikastaroa izango, tailerra baino. Jente askorentzat tailerra berbeak beste zentzu bat izango dau, baina berba hori erabilten dogu zera adierazoteko: eskola praktikoak izango diralako, zelan egin irakatsi, eta bertan praktikan ipiniko dalako. Praktikak egiten denpora gehiago erabiliko da, zelan egin behar dan azaltzen baino. Andrazkoen hitanoaren kasuan binakako praktikak egingo dira, andrazkoak andrazkoakaz, gizonetakoak andrazkoakaz... egin behar dan formak erabiliazoz, lehenengo idatziz eta gero berbaz...

Nori dago zuzenduta ikastaroa?

Tailerretara etorteko ez dago adinik, gura dauan guztiak etorri ahal izango dau. Maila bat eskatuko da: euskeraz irakurten eta idazten jakitea. Ikaslerik onenak motibazio handiena daukienak izango dirala ez dot zalantzarik egiten.



Haizea aurpegian liburuaren azala.

"Tailerra baino lehen eta motorrak berotuteko urri bigarrenaren 6 eta 13an hitzaldiak antolatu doguz Kultur Etxean 19:30ean. Hilaren 6an, Laura Mintegik "Literaturak mundua aldatu daike?" berbaldia emongo dau, eta 13an "Euskararen Herri Hizkeren Atlas: Arratiako datuak" izenburupean Xarles Bidegain eta Gotzon

dagoz horniduta liburu biak.

Haizea Aurpegian liburuaren muina Lemoako Gaztetxeako blogean azaldutako artikuluak osotuten dabela dino egileak: "Ipuinak, itzulpena, biatje kontakizunak... eta dana istorio biribilago baten kokatzen saiatu naz. Personaje nagusi bat dago bere barne galderai erantzuten saiatzen dana".

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



Erredakzioaren HELBURUA EZ PUBLIKOAK

RAID

Arratiarrak lehenengo postu biak

Erredakzioa

Denporaldi amaiera ezin hobea egin dabe Arratiako raid talde biak. Izan be, lehenengo eta bigarren egin eben Xegiba Zona Bike eta Arteaztarrak taldeak hurrenez hurren uri lehenengoaren 24 eta 25ean jokatu zan X. Raid Pelayo Picos de Europa proban.

"Proba honetan Potes herritik Cangas de Onisera heldu behar zan Picos de Europa mendikatea zeharkatuta, Covadonga lakuetan gaua pasauta" azaldu deutso beerruri Xabi Iturriaga Xegibakoak. Proba honek guztira 80 km. mendi bizikletan 31 km trekkingean eta 6 km piraguan izan zituan. Lehenengo postua lortu eban Xe-

giba Zona Bike taldeak 13 ordu eta 55 minututan eginda. Taldea Egoitz Beobide, Ibai Pinedo eta Xabi Iturriagak osotuten dabe. Bigarren postua Arteaztarrak taldeak lortu eban, eta horretarako, 13 ordu eta 59 minututan gelditu eben erlojua. Taldea Gaizka Agirre, Imanol Agirrek eta Imanol Ormazabalek osotu dabe.

MENDIA

Txikonek berbaldiak emongo ditu institutuetan

Erredakzioa

Bizkaie!-k informau dauanaren arabera, Alex Txikon izango da aurtengo "Aukeratu Zeurea" kanpainaren irudia. Euskerea eta kirola buztartzen dituan kanpaina honen aurtengo edizioan, mendizale-tasuna jorratuko dau Alkarbidek, BFAko Bizkaiko euskera zerbitzuen bilguneak, Alex Txikon mendizale lemoztarraren eskutik. Kanpaina honen helburua euskerearen erabilera kirolean sustatzea da.

Hori dala eta, Txikonek berbaldiak emongo ditu Bizkaiko institutuetan, batez be, DBHko ikasleentzat. Berbaldiotan, euskal espedizioetan euskereak zein leku hartzean dauan azalduko dau Txikonek.

Euskerea eta kirola lotzean dituan egitasmo hau 2009an hasi

zan. Hiru urte honeetan hamabi kirol landu dira poster eta liburuxken bitartez eta hainbat euskarri eskaini jakiez erabiltzailei euskeraz, berbarako, kirolariak animetako esaldiak, eskuko telefonora deskargauta. Igaz, Bizkaiko 30 udalek parte hartu eben ekimenean eta 2.000 poster eta 25.000 liburuxka banandu ziran.



Alex Txikon.

RUGBYA

Hasi eta irabazi

Ainhoa Duñabeitia

Aurtengo denporaldia hasi da Zekorrentzat, eta ondo gainera. Partidu bi izan ditu eta biak irabazi. Bata etxean eta bestea kanpoan. Urri lehenengoaren 24an, izan eben lehen; La Unicareen kontra eta 32-22 irabazi eben.

Urri bigarrenaren 1ean etxetik kanpo jolastu eben, Faturan, Getxo Artearen aurka. Getxo Artea 25 - Arratiko Zekorrek 38 izan zen azken emoitzea. Hurrengo norgehiagokea etxean jokatuko dabe.

Kadeteak be urri bigarrenaren 1ean izan eben partidua Durangoren kontra eta honek be irabazi eben, 52-24.

Neskak ez dabe partidurik jokatuten, baina entrenetan dira.

Elexalde

Meri eta Josetxu

Pinturak (kolore guztiak)

Egur babesleak



Suteak eta behe-suak

Garbiketa produktuak

Lehendakari Agirre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

indar

instalazio elektrikoak



Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

Dia %

PEDRO
AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ZEKUTZE
JATEZEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutejatezea@hotmail.com

Tel: 94 631 52 83

Los Chopos

neurritza egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nogai) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizioa eta
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

AKETEGLA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DIRU KONTSULTAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASIGURATUAN

Sabino Arana, 5-3. floor 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 05 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a Tel: 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia Tel: 609-79-40-54

axular
kultur etxea

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturrizt barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDIA

Mendi martxa ugari hileon

Hamabostaldi honetan, Ganzabalek antolatutako Arratiako mendi eta herrietan zeharreko ibilaldia izango da hilaren 8an, Diman Sisetan mendi martxea 15ean, egun berean Arantzazun Mugarri Bira antolatu dau Arginatzen eta hurrengo egunean Igorren Mugarri Biraren XXIV. edizioa izango da Motxoganez antolatuta.

Erredakzioa

Ganzabal Mendi taldeak antolatutako Arratiako mendi eta herrietan zeharreko urteko hirugarren ibilaldia urri lehenengorako egoan antolatuta baina atzeneko aldaketa batzuk dirala eta, urri bigarrenaren 8ra pasau dabe.

Ibilbidea Dimatik Ubidera izango da Ilunbe-Altungana-Eneabe mendietatik pasauta. Zitea 08:00etan

Dimako plazan.

Arantzazuko Mugarrien Bira

Goizeko 09:30ean batuko dira parte hartzaileak Arantzazuko plazan, Arantzazuren mugetatik 10 km. inguruko ibilbidea egiteko. Arantzazuko plazatik urten eta Uribikinetan-Aspuru-Argiñao eta Kukutze egingo dabe ibiltariak; Bildosolako industrialdean hamarretakoa egingo dabe gero, eta bideari ekingo

deutsie barriro. Elezkao-Arandui-Institutua-Errotazar-Idurietatik pasau eta Arantzazuko plazan amaituko da Arginatzen antolatuten dauan martxa hau.

Dimako Sisetan

Egun berean, hilaren 15ean Dimako Sisetan Mendi martxea eta BTT martxak izango dira. 07:30ean urtengo dira mendi martxak eta 09:30ean bizikleta martxak. Bako-

txak ibilbide bi izango ditu luzea eta laburra.

Mendi martxako ibilbide luzeak 37 km. izango ditu eta ibiltariak Pagozelai, Markue, Artaxagan, Larrungan, Inongan, Eskua, Saibi, Zumeltza, Altun eta Lamindatik pasauko dira. Laburrak 23 km. ditu eta ibilbidea Dimako plaza-Pagozelai-Markue-Keixa-Obakoatxa-Inongan-Jentilzubi-Bargondi-Dimako plaza izango da. Izena aurretiaz emon daiteke internet bidez www.dima-udala.org helbidean.

Bizikleta martxan izena emoteko be alde aurretik egin daiteke udaleko webgunean edo egunean bertan. Dana dala, parte hartzaile kopuru gehiena 150 lagun dira.

Igorreko Mugarri Bira

Motxoganez antolatutako Mugarri Birak, ibilbide bi izango dauz, luzeak 25 km izango ditu eta laburrak erdia inguru. Igorreko kiroldegitik urtengo dira biak, luzea egin gura dabenak 08:00etan eta la-

burra egingo dabenak 09:00etan. Izena, egun berean emon behar da martxea hasi baino ordu erdi lehenago.

Ibilbide luzea egin gura daben ibiltariak Igorre-Aratmotz-Urkuzu-Apario-Arginatzen-Apala-Artabe-lzurtza-San Migel eta handik barriro Igorrera. Laburra egiten dabenak, barriz, Igorretik San Juanera joango dira eta Ubixatik Urkuzura han martxa luzeagaz bat egiteko.



2009ko mendi martxa bat.

Ezagutu gurekin gaur, bihar eta atzoko euskal sukaldaritza

UBIDE
ELKARTOKIA ↑

- Eguneko menua
- Asteburuko menua
- Koadrilentzako bazkariak
- Pintxojana
- Eta giro jatorria

www.ubide.wordpress.com

Jon Diuna enparantza 1. Ubide
Tlf: 945450339

ZORIONAK IGORRE!
Euskerearen aldeko Lip Dub-a
<http://www.vimeocom/29637923>

herrik sortutakoa herriarentzako
ESKERRIK ASKO!

Igorreko Euskera Planeko Batzordea

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tubak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriales, Pab. 07
Tel./Fax 94 679 62 76
819 736 616
48143 Igorre Bizkaia

IKASTAROA

Sormena nortasuna garatzeko erremintatzat dauka Ines Medinak

Ines Medinak hiru urte daroaz Igorren ikastaroak emoten eta horreen emoitzak hasi dirala nabaritzen uste dau pintoreak. New York-en urte askoan bizi ostean, Euskal Herrira etorri eta Igorren *Panpin Erreak* izeneko bilduma erakutsi eban eta Arratian aurkitu eban behar egiteko gustuko lekua. Arte plastikoaren hainbat tailer edota mintegi emon dauz Medinak eta aurten, mintegiaz ganera, ikasleen sormen prozesua erakutsiko dauan erakusketea antolatu gura dau.

Erredakzioa

Urteak daroazuz Arratian ikastaroak emoten, baina tailer hau barria da. Zertan da desbardina?

Sormen prozesuaren garapenean zentretan da. Aurten jente barria etorri da eta bete egin da tailerra. Beste gela bat zabaldu behar izan dot eta teknika eta metodoak ikasteko sail bat sortu dogu. Hiru urte daroazen ikasleak prozesu oso bat egin dabe eta sano interesgarria da prozesu hori ikustea.

Zer dakar sormen garapenak?

Nor bere buruaren konzientzia hartzea. Urte gehiago daroen personentzako espezifikogoa da. Artea eta artea egiten dauan

personaren arteko interakzioa bultzatzen dogu, persona horrek sortzean dauan irudian bere burua identifikatu daian.

Aitatu gura dot konzientzia hartze horretarako inportantea dala danon artean egiten dogun ikasle lanen azterketea. Hori dala eta, aurreko klaseak bost ordu luze izan zituan. Sano interesgarria da. Eta interesgarria be bada gehieneko ikasle kopurua 12 persona dirala.

Pentsetan dot holan 12 eskola partikular bezala izango dirala.

Bai halaxe da. Eta oso desbardinak dira bai arteari jagokonean, baita beste edozein arlotan. Eta hori niri itzel gustetan jata, jente desbardina leku baten alkarregaz batzea.



Ines Medina.

Materiala matrikulearen prezioaren barruan egoan.

Materiala neuk aukeratzen dot. Eta eskaerea be neuk egiten dot. Lehenengo urtean eskaerea orokorra zan, orain ikasleak aukeratutako teknikak izaten dodaz kontuan. Teknika guztiak dagoz: arkatza, ikatz-ziriak, akuarelak, pastelak, akrilikoak, olioak, modeletea... beraz danetik behar da: papelak, oihalak, kartoiak...

Udalak antolatuten dabezan arte aplikatuen beste ikastaroen aldean desbardina izango dalakoan nago, publiko desbardinari dago zuzenduta ala osagarriak izan daitezke?

Ez dago zertan publiko desbardinari zuzendu ikastarook. Nire mintegiak pintore eta irakasle lanetan izan dodan sormen garapenean esperientzian dagoz oinarrituta. Neure lanetik ateratako ondorioetan. Guztiz originala eta neure-neurea.

Hamasei edo hamazortzi urtetik gorakoai dago zuzenduta, ez da umeentzako. Maila artistikoa edozein izanda be. Inportanteena

teknika eta disziplinen aldetik zer edo zer ikastea eta norberaren buruaren konzientzia hartzea da.

Arratian egiteko beste proiekturik badozu?

Hau hirugarren urtea dot Arratian. Erakusketa bat egin neban eta ha aurkezteko berbaldi bat. Gero mintegiak etorri ziran. Hiru urtez mintegiak emon ostean, uste dot emoitzak erakustea inportantea dala eta ikasleen prozesua erakusten daben lanakaz erakustaldi bat egiteko asmoa daukat, sormen prozesuaren ganeko berbaldi batez aurkeztuko dodana.

Ikasleen lanak erakutsiko dozuz orduan.

Sormen prozesuaren ganeko berbaldi batez aurkeztuko dodaz lanok prozesuaren adibide moduan erakutsiz, beti be ikasleak baimena emoten badeuste. Data ipini barik dago baina mintegia amaitu eta astebetere edo izango da.

Beste proiekturik?

Oraindino konfirmatu barik dago baina New York-eko fundazio baten erakusketea egiteko proposamena daukat. Bestalde, leku aldatzen nago eta horren ondorioz be sortuko da zeozer. Udaletxeren bat edo beste nire atzetik dabil eta pozik nago.

Troconiz Santacoloma Portugaleteko fundazioak urte asko daroaz andra artistakaz beharrean, aurten biltzar moduko bat egingo dau eta Euskadiko andra artistok batuko gara bertan. Uste dot oso interesgarria izango dala, lehenengotik eta behin alkarri begira jarriko garalako eta ganera, eta hau nire interesa da, sortu ahal diralako alkarriketaz eta eztabaidak andra artistok Euskal Herrian zein egoeratan gagozan aztertzeko.


BERBALDIA

Egoera politikoaren ganeko berbaldia emongo dau Joseba Ariznabarretak

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 19an, Igorreko Kultur Etxean Joseba Ariznabarreta *Pueblo y Poder* libururaren egileak berbaldia emongo dau gaurko egoera politikoa aztertuz. Joseba Ariznabarreta filosofoa da eta ikuspuntu horretatik helduko deutso gaurko egoera politikoaren azterketari.

"Ez gagoz oso egoera onean independentzia lortzeako, gure herriaren etorkizuna ez da ona. Horretarako bide estrategikoa egin behar da eta orain artekoa ez da estrategikoa izan" dino filosofoak. Berbaldian, estrategiak proposatuko dituala dino Ariznabarretak.



Joseba Ariznabarreta.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaille ofiziala
















· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.

IKASTAROAK

Aisialdian gauza barriak ikasteko aukerea emoten dabe gure udalak

Erredakzioa



Yabar zirku tailerreko irakaslea.

Bedian edo Zeanurin egin daitekeena. Baina baita, gauza original eta ludikoagoak be aurkitzen doguz udal ikastaroen eskeintzan: umeentzako zirkua edo literatura, Igorren; biodantza Areatzan edo memoria tailerra Bedian, berbarako.

Euskera ikasteko aukerea be badago Lemoan eta Zeberion. Eta Trukutze Txalaparta Taldeak txalaparta ikastaroa be antolatu dau kurtso barriari begira.

Munduko jantzak

Jantzan egiten ikasteko aukera handia dago gurean. Holan, euskal jantzak ikasi daikaguz Artean; biodantza, Areatzan eta jantza afrikarrak eta jantza egipziarra Igorren. Jantza eta gimnasia erdibidean dagoan aerobic-a, barriz, Artean, Areatzan, Bedian, Igorren eta Zeanurin egin daikagu eta Tai Chi ikastaroa Bedian eta Igorren, besteak beste.

Ikasturtea hasten danean, udalak hainbat ikastaro eskeintzen dabez prezio onean, kolektibo batzuen beharrai edota nahiai erantzuteko asmoz. Klasiko bihurtu dira edadeko jentearentzako gimnasia, Artean eta Areatzan egin daitekeana; informatiketa, Bedian eta Lemoan; edota yoga, Artean, Areatzan,

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Ilustrazioaren zantzuak erakutsiko dabez Areatzan, Ubiden eta Zeanurin

Erredakzioa

"Argiak eta aurrerapena. Bizkaia Ilustrazioaren garaietan" izango dabe titulutzat aurtengo Ondarearen Europako jardunaldiak. Areatza, Zeanuri eta Ubidek bisitak eta ibilaldiak eskeintzen dabez gaiaren inguruan.

Ondareari buruzko Europako

2011ko Jardunaldien oinarria herrikideen adimenari argia emoten, irakasten eta zibilizetan saiatu ziran zenbait bizkaitarren ahalegina erakustea da Foru Aldundiaren arabera. "Ilustratuak garrantzi handia emoten eutsien antolaketeari eta, horren eraginez, uriaren beste kontzeptu bat zabaldu zan, zerbitzu publikora gehiago



Olabarriko errotea bisitauko da jardunaldiotan.

bideratuta egoana. Eraikinak estilo barroko eta neoklasikokoak ziran".

Areatza: plazatik komentura
Jardunaldi honeen barruan Areatzako Udalak bisita gidatuak antolatu zituan hilaren 1 eta 2an. Plazatik urten zan bisitea, hori da eta uribilduko lekurik bereizgarriena. Gaur egun abandonatuta dagoan Santa Isabel komentuan amaitu zan bisitea.

Zeanurin errotea eta karobia
Zeanuriko Udalak be hartuko dau parte jardunaldiotan Olabarriko errotera eta San Justoko karobia bisitak antolatuz. Hilaren 15ean izango dira bisitok eta interesatuak Sagarna txokoaren parean goizeko 10:30ean batuko dira.

Ubiden Larreen Mankomunitatearen ibilbidea

Larren Mankomunitatearen ibilbidea be Europako ondare da. Aurten Ubideko plazatik urtengo da hilaren 29an, goizeko 10:00etan. Zeanuri eta Ubideko udalbatzak urtero biltzean dira larreen mankomunitatearen kontuen likidazioa egiteko.

DUNBA

Turkiara goaz!



Turkiako eskolea eta bertako umeak.

Zeberioko eskolako ikasleak

Aurten, Comenius proiektua dala eta, Zeberioko seigarren mailakoak Turkiara joango gara datorren urri bigarreneko 19tik 25era bitartean.

Comenius Europako proiektua da. Beste herrialde batzuetako ikastetxeak hartu-emonak izaten doguz e-postaren bidez eta gai komun bat lantzean dogu. Urtean behin gu joan edo eurtako batzuk gurera etorten dira.

Igaz adibidez, ikasle poloniar eta turkiarrak etorri ziran. Zeberion zehar ibilbidea antolatu genduan hareekaz egiteko. Turkiara joaten garanean, beste ibilbide bat egingo dogu, holan euren historia, ohiturak, izakerea, bizimodua...

ezagutuko doguz. Beste ekintza batzuen artean museoak ikusi eta eskolea bisitauko doguz, baita euskal jantzen bat erakutsiko be.

Familietan egongo gara binaka, euren artean eta ohitura desberdinak ezagututeko aukerea izango dogu.

Turkiako alderik handiena Asian dagoala ikasi dogu nahiz eta zati bat European egon. Horregaitik hara joateko osasun txartel bereziak egin behar izango doguz.

Dirua lira turkiarra da baina euroakaz be ibili ahal izango gara uste dogu. Janaria be desberdina izango da: mundu guztian dagoan pasta eta arrozaz ganera, barazkiak, artxoa, zopak, tomateak... jaten dabez, baina espeziakaz. % 95 musulmanak diranez ez dabe txarri okelarik jaten.

Akhisar izena daukan herrian egongo gara (Turkiako mendebaldean dago). Hango klima Andaluziakoaren antzekoa ei da.

Gu ingelesez egiten moldatuko gara bertako familiakoak baina hizkuntza ofiziala turkierea da. Hona hemen adibide batzuk:

Egun on Günaydin
Aupa Merhaba
Agur Güle güle

Kirolak ezagunena futbola da baina badaukie "yaglli" izeneko burruka berezi bat. Burrukalariak gorputza orioz igurtzen dabe eta horregaitik sano gaxa izaten da




lehiakidea behera botatea. Ea erakustaldiren bat ikusteko aukerea daukagun!

Ekarriko doguzan oparien artean begi turkiar eta eraztun ugari egongo dira zalantza barik, hareentzat oso ezagunak eta esanguratsuak dira eta.

Biaje luzea izango da baina mezezi izango dau!!

Güle güle, Agur.



Turkiako antxinako gauzak.

AGENDEA

**URRI BIGARRENAK 3
AREATZA**

11:30ean, 3. adinekoentzat gimnasia hasten da.

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, 2011ko lehenengo sei hilabetearen egindako ekintzen argazkien erakusketa liburutegian, hilaren 14a arte.

**URRI BIGARRENAK 4
AREATZA**

18:30ean, Arte Aplikatuaren ikastaroa hasten da.

DIMA

Sanfreskuak Indusin. 12:00etan, Mezea. 13:00etan, Barauskaria. 14:00etan, Zozketea.

**URRI BIGARRENAK 6
AREATZA**

19:30ean, Yoga ikastaroa hasten da.

IGORRE

19:30ean, Laura Mintegi "Literaturak mundua aldatu daike?" izeneko berbaldia emongo dau IKEn.

**URRI BIGARRENAK 7
BEDIA**

18:00etan, txorien diaporama. Fernando Ruiz. Liburutegian.

DIMA

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

**URRI BIGARRENAK 8
ARRATIA**

Ganzabalek antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak 3. zeharkaldia.

ARANTZAZU

19:00etan, EITBk mezea grabauko dau San Pedro Apostolua parrokian.

IGORRE

"Igorren erosi" kanpaina AMEK antolatuta.

11:00etan, Globo aerostatikoa. 17:30ean, Mendilurren erakustaldia. Artzai bakurrak ardiakaz eta okakaz. 19:30ean Txahal erre pintxoak.

22:00etan, zinea Lasarte Aretoan *Un cuento chino*.

**Laura Mintegi Igorreko Kultur Etxean**

Laura Mintegi "Literaturak mundua aldatu daike?" titulupeko berbaldia emongo dau Igorreko Kultur Etxean hilaren 6an. Berbaldi hau eta hurrengo egunean, hilak 13, Xarles Bidegain eta Gotzon Aurrekoetxeak emongo dabena Zertu Kultur Elkartek antolatu ditu, arratiera tailerraren atari moduan.

Laura Mintegi (Lizarra, 1955) idazlea eta Euskera eta Euskal Literatura irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Aldizkari eta egunkari ugaritan argitaratu ditu bere artikuluak eta ipuin, nobela eta saiakera asko idatzi ditu hainbat sari jasoz, tartean Azkue saria *Bai baina ez* nobelagaitik.

**URRI BIGARRENAK 9
IGORRE**

10:00etan Garbeko Azokea.

17:00etan, umeentzako zinea *Harry Potter y las reliquias de la muerte. Parte II*. 19:30ean, zinea Lasarte Aretoan *Un cuento chino*.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea, Arangoiti (1.355 m.).

**URRI BIGARRENAK 13
IGORRE**

19:30ean, Xarles Bidegain eta Gotzon Aurrekoetxearen "Euskararen Herri Hizkeren Atlas: Arratiako datuak" titulupeko berbaldia. IKEn.

**URRI BIGARRENAK 15
ARANTZAZU**

09:30ean, plazatik Arginatzek antolatuta Mugarrien Bira mendi martxea.

19:00etan, EITBk mezea grabauko dau San Pedro Apostolua parrokian.

BEDIA

18:00etan, zinea *Arthur eta Minimoiak* liburutegian.

DIMA

07:30ean, Sisetan mendi martxea plazatik. 09:30ean, Sisetan bizikleta martxea plazatik.

IGORRE

22:00etan, zinea Lasarte Aretoan *La boda de mi mejor amiga*.

UBIDE

Amexier Mendi Taldeak antolatuta Peña Leon (1389 m.).

ZEANURI

10:30ean, Olabarriko errotara eta San Justora bisitea. Urteera Sagarna txokoaren parean.

**URRI BIGARRENAK 16
IGORRE**

08:00etan, Mugarri Bira mendi martxa luzearen urteera kiroldegitik. 09:00etan, Mugarri Bira mendi martxa laburraren urteera kiroldegitik.

17:00etan, umeentzako zinea *Kung Fu Panda*. 19:30ean, zinea Lasarte Aretoan *La boda de mi mejor amiga*.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
SALTZEAN DOT**

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibxi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

TXAKURRAK SALGAI

Maiatzean jaiotako 3 txakur kume salgai. Arrazea: Alemaniako artzain- txakur mestizoa. Ama pedigriduna eta aita mestizoa. Deitu 636 132 741 telefonora.

**LAN ESKEINTZA
ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**DANERIK
APARTAMENTUA ALOKAIRUAN**

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Udalak emondako Fasioren Mendea CD-DVD-Liburua.

Miriam Abasolo (Artea)
Amaia Goti (Dima)



2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.

Miren Garbiñe Etxebarria (Lemoa)
Ibon Iza (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

JOSEBA RODRIGUEZ

"Arrebearen komuninoan biztu jatan zaletasuna"

Beti kamara atzean ibiltzen bada be oraingoan objektibo aurrean harrapatzea lortu dau BEGITUK, Joseba Rodriguez igorretarra. Ezta bakarrik etorri ostera, urte beteko semeak lagundu deutso, bildur eszenikoa ete dauka ba? Ikus-entzunezkoen munduaren inguruan hainbat esperientzia kontatu deuskuz, horreen artean orain asko ez dala grabatu dauan Igorreko Lip Dub-aren inguruan be berba egin dau.

Irati Urien**Arte Ederrak ikasitakoa zara zu. Zergaitik?**

Batxilergoa zientzietatik egin neban baina gero ez neban fisika, matematika edo zientzietako ezer ikasi gura. Arte Ederretako irakasgaiak begiratu nebazan eta konbenzidu egin eusten; batez be, hirugarren urtetik aurrera ikus-entzunezkoak berezitasun moduan egiteko aukerea edukiko nebalako. Horrek tiritu eustan. Gustatu eginen jatan mundu hori: pelikulak, zinea...

Bokazioduna zarala esan geinke?

Bokazioduna biztu eustana ez dakit ez ete zan izan nire arrebearen komuninoan, (nire arrebeak nik baino lau urte gixiagok daukaz) aitak bere kamarea emon eustan, arrebeari argazki bat ateraten joateko esanez. Joan nintzan, eta komuninoan hartzeako momentuan argazkia ateratu neuntsan. Gustatu eginen jatan esperientzia, argazkilari izatearen sensazio hori.

Nondik nora ibili zara?

Institutuan kamara bat egoten zan. Beste lagun bat eta biok kamara hori eskatu eta grabetan ibiltzen ginan, beti zeozer egiteko gogoagaz. Unibersidadeko hirugarren urtean be gauza gehiago grabetan hasi ginan: Atxarteko kanteretan grabetan ibili ginan, institutuko hitzaldi baten

bideo bat ipinteko. Gero, ez neban ETBrentzat zuzenean beharrik egin baina produktoreen bitartez bai. Prensurrekoak egiten hasi nintzan eta polita izaten zan, egunero gauza diferenteak egiteran, asko ikasten zalako baina kondizioak eskasak ziran: arrastietan eta astegoietan egin behar izaten zan behar, ez dago oso ondo pagauta... Baleuko eta Tres Coma-n be ibili nintzan errealizadore moduan.

Oporretan joateko aprobezauz, bueltan sariagaz etxera?

Orain lau-bost urte Madrilan egon nintzan produktora baten beharrean. Hangoa amaitu zanean, Gasteizko Mendizabalako Batxiller Artistikoan ordezkapen bat egiteko esan eusten. Urte horretan, La Palmako gizon baten hitzaldi bat egon zan. Gizon hori *Festivalito* jaialdiko zuzendaria zan. La Palman urtero egiten dabe baina orain finantziarioa dala eta, itxi egin dabe. *Cine de guerrilla* deituten eutsien euren. Merkea zan, oso medio gixigaz egindakoa eta dokumentalak ziran. Gizonak konbenzidu egin eustan eta andregaz La Palmara joan nintzan. Han gengoazala, batzuk zerbeza batzuk hartzean, korto bat egitea pentsatu eben. Bertan, herri maratoi bat dago, non gai bat ipintzen eben eta 48 orduan korto bat egin behar zan. Euskeraz egin gura eben eta ea parte hartu gura neban esan eusten, euskaldun asko ez egoazala

eta inguruan. *Honus Vascus* deitu zan. Kalidade aldetik ez zan oso gauza handia baina jenteari gustatu eta irabazi egin eban.

Igorren film laburren inguruko ikastaroa eta lehiaketara egoten dira. Zelan ikusten dozu?

Ikastaroa bi urtetan egin da eta egia esan esperientzia polita da ze jente gazteagaz beti pasetan dozu ondo, beste gogo eta freskura bat daukie gauzak egiteko. Ezin dozu gauza konplikauegirik egin baina zeozer duina egiteko aukerea badago. Urte bi horreetan, lehiaketara aurkeztu eta irabazi egin zan gazte mailan. Publikoaren saria urte bietan ez bazan be baten irabazi zan.

Arratian badago zaletasunik?

Nik uste dot jentea badagoala. Gero eta gazte gehiago dagoz ikus-entzunezko komunikazioa ikasten dabizanak. Oraintxe be, ni Gasteizko Mendizabalan nago, irudi eta soinu klaseak emoten ziklo baten eta bertan Igorreko bi dagoz lehenengo kursoa egiten. Pentsetan dot zaletasuna gero eta gehiago egongo dala; eta ez zaletasuna bakarrik, gauza politak egiteko kapazitatea be bai. Gero badagoz beste batzuk, ez dakienak zer dabizen ikasten baina horren inguruan gauzak egiten dabezanak. Orain dala hiru urte Urtzi Barreneiteak irabazi eban eta beste batzuek be aurkeztu dabez kortoak. Honek guztionek, jentea gauzak egiten eta disfrutetan dabilala ikusteak, ilusinoan egiten dau.

Lekeitioko film laburren lehiaketara aurkeztu zara, kontatu egizu apur bat.

Proiektua sortu zanean, zeozer zabalaz izateko ideagaz sortu zan. Gaur egungo Euskal Herriko egoera politikoa apur bat berezia danez horren inguruan herriko jenteari eta ezezagun edo politikoiak preuntak egin deutseguz: ia zelan ikusten daben egoerea, etorkizuna... eta horregaz dokumental txiki bat egin dogu. Zeozek urten dau, aurkeztu dogu, baina

"Neure umearn

bideorik ez dot egin. Ez daukat parkamenik"



egia esan ez gagoz oso pozik emoitzeagaz. Oso denpora gixian egin dogu, zeozer faltetan jako: errekurso batzuk, kortoa janzteko zeozer. Guk jentearen eretxia baino ez dogu ipini, ez dago landuta, orduak falta izan jakoz. Ez gara gelditu gustura ez.

Aurreko hileko 24ean Lip Dub-a grabatu zenuan. Zelan esperientzia izan zan?

Nik kamarea eroan neban bai, nahiz eta azkenerantza Ibon Izak hartu eban grua igoteko. Esperientzia bari bat izan da niretzako be. Izan be, grabetako stadycam bat erabili dogu, irudia estableago agertuteko. Lagun batzuei eskatu neutsen, barikuan itxi eusten, proba batzuk egin eta zapatuan grabatu genduan. Ilusinoan egiten eustan organizatutako plano sekuentzia bat grabetea. Osteko beharra ganera ez da astuna izan, ze Lip Dub-a izanik ez zan montajerik egin behar, musikea ipini baino ez. Oso esperientzia ona izan da. Jentearen erantzuna, pozik ibili dirala ikustea eta danok batera Igorren gauza bat egitea... ez da askotan ikusi.

Bideoa sarera igon eta egun bakar baten 3000 erreprodukzio inguru. Gauzak ondo egin diran seinale?

Bai eta jente askok parte hartu dauan seinale be bai. Azken baten jente asko egon da hor. Parte hartu dauan jente guztiak bakarrik ikusten, gero komentetan deusiela

baten batera "joe ba Lip Dub-a egin dogu..."; horrek familiari eta familiak beste batzuei... horregaitik dauka hainbesteko balorea, ez? Uda aurretik hasi zan kontua, lan talde handi bat egon da antolatuten hor, behar handia egin dauana: batzarrak egin, jenteagaz gelditu, informazioa prestatu, lekuak zehaztu, ensaiatu... Jente askoren beharra izan da eta horregaitik pentsetan dot nik daukala arrakastea.

Aurrera begira badaukazu pantaila aurrera eroateko proiekturik?

Nire proiektua hemendik aurrera etxeokaz denpora gehiago pasetea da. Oporren ostean oso estresantea izan da dana. Alde batetik Lekeitioko dokumental laburra prestatzen, grabetan eta editetan ordu piloa sartu doguz; gero Lip Dub-aren inguruko batzarretan eta ensaiotan beste horrenbeste eta irakasle lanetara bueltetea be gogor egiten da. Orain proiektua hori da, apur bat erlajatu eta etxeokaz denporea pasatu. Momentuz haize apur bat.

Andreak eta semeak euki dabez lanen bateko protagonistak izateko aukerarik?

Ez. Errementariaren etxean zotza burduntzi. Andreak baten baino gehiagotan arpegiratu deusta "zu dantzako bideoak egiten eta nik ez daukat bat bera be ez, umearna be ez dozu egin...". Eta egia da, ez dot egin eta ez daukat parkamenik.

æek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

eman izena

Arratiako AEK

Agirre Lehendakaria 4

Igorre

94 631 56 57

www.aek.org

æek

Garuna ikasleko
para entender
pour se comprendre